



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2010eko UZTAILA

**EUSKARA ETA
LITERATURA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2010

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA**

Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bat erantzun behar duzu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

- *Lehenbizi TESTU bat duzu.*
- *Testu bakar honen gainean eraikiak daude bi aukerak: A eta B. Bietako bat egin behar duzu.*
- *Aukera bakoitzak hiru atal ditu:*
 - *Irakurmena*
 - *Ulermenari buruzko galderak (2 puntu)*
 - *Gaia eta laburpena (2 puntu)*
 - *Kizkuntzaren/literaturaren inguruan (2 puntu)*
 - *Idazlana (4 puntu)*



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2010eko UZTAILA

**EUSKARA ETA
LITERATURA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2010

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA**

Elena Odriozolarekin hizketan

Ilustrazioko *Euskadi* saria jaso du Elena Odriozolak. Txikitatik datorkio marrazkigintzarako zaletasuna. Arte eta dekorazioa ikasi eta maketatzailer eta publizitate arloko lanetan zebilela, agentzia itxi egin zuten. Orduan, dena utzi eta liburuak ilustratzeari ekin zion. Harrezkero, 70 liburu inguru edertu ditu.

Nola definituko zenuke zeure estilo hori?

Gauza sinpleak gustatzen zaizkit, garbiak. Batez ere, pertsonaien bidez adierazten ditut sentimenduak eta emozioak, gauza gutxirekin... Gauza gehiago jarritz gero, oso barroko ikusten dut eta berehala pentsatzen dut "*Hau zertarako? Kanpora!*".

Zer da zuretzat marraztea?

Zerbait adierazteko daukadan modua. Askoz hobeto espresatzen naiz marrazten hizketan baino. Bizitzeko era bat. Ez da lan bat, gustatzen zaidana egitea baizik. Oso ondo pasatzen dut marrazten, askotan horretan nabilela ingurua desagertzen zait.

Nola egiten duzu lan? Irakurri, pentsatu, hasierako zirriborroa...

Era askotara izan daiteke, baina normalean irakurtzea da lehen pausoa, gustatzen zaidan ala ez ikusteko. Gustatzen ez bazait, ezetz esaten dut. Aldiz, gustura ilustratuko dudala iruditzen bazait, irakurri, zer sentitzen dudan ikusi, ea zer etortzen zaidan... eta egin! Liburu bat irakurtzen duen edonork berehala irudikatzen du buruan nolakoak diren pertsonaiak, denok daukagu ahalmen hori. Baina, nire ustez, ez da marraztu behar testuan dagoena, marrazkiak pixka bat haratago joan behar du. Nahiz eta testuarekin batera joan, ilustratzailearen ikuspegia agertu behar da bertan, sentiarazten diona.

Beraz, testu batek sentimendurik inspiratzen ez badizu, ezetz esaten duzu?

Bai. Orain lehen baino gehiagotan esaten dut ezetz, buruari buelta gehiago ematen dizkiodalako. Lehen errazago egiten nituen gauzak, gehiegi pentsatu gabe. Orain desberdin ikusten ditut gauzak, eta horretan badute zerikusirik lan honetan daramatzadan urteek.

(M. Egimendi, AIZU Aldizkaria. Moldatua)



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2010eko UZTAILA

**EUSKARA ETA
LITERATURA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2010

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA**

A AUKERA

A.1.- IRAKURMENA

- *ULERMENA (2 puntu)*

(Ondoko esaldietan, adierazi zein diren *EGIAZKOAK* eta zein *GEZURREZKOAK*. Aski duzu, esaldi bakoitzari erreferentzia egiteko, dagokion zenbakia ematea)

1. Bere ikasketak bukatuta, liburuak ilustratzeari ekin zion.
2. Liburuak ederto idaztegatik eman diote saria.
3. Marrazketan, estilo barrokotik ihes egiten du.
4. Liburuetan, pertsonaiek adierazten dituzten sentimenduak eta emozioak marrazten ditu.
5. Marraztea gozatzeko bidea da.
6. Elenaren ustez, denok dugu marrazteko ahalmena.
7. Ilustratzaileak sentitzen duena agertu behar da marrazkietan.
8. Lan errazei ezetz esaten die, lan desberdinak nahiago dituelako.
9. Marrazkiak testuari lotua egon behar du.
10. Marraztea, azken finean, lana baino zerbait gehiago da.

- *GAIA ETA LABURPENA (2 puntu)*

- GAIA (Eman esaldi bakar batean, testu honen gaia.)
- IDEIA NAGUSIAK (Azaldu testuan agertzen diren ideia nagusiak.)

A.2.- HIZKUNTZA ETA LITERATURAREN INGURUAN (2 puntu)

- *MOLDATU ESALDIAK*

(Berridatz itzazu esaldiok parentesi artean eskaintzen zaizun bidez baliatuz.)

- a. “dena utzi eta liburuak ilustratzeari ekin zion”.
(... **hasi** ...)
- b. “Ez da lan bat, gustatzen zaidana egitea baizik.
(... **baino gehiago** ...)
- c. “nire ustez, ez da marraztu behar testuan dagoena”.
(**uste dut** ...)
- d. “Orain lehen baino gehiagotan esaten dut ezetz, buruari buelta gehiago ematen dizkiodalako”.
(... **bait** - ...)

A.3.- IDAZLANA (gutxienez 200 HITZ) (4 puntu)

- *GUTUNA*

Hormak zikintzeagatik isuna heldu zaizu. Zure graffitiak artea direla argudiatuz, egiozu alkateari gutun bat, isuna barkatzeko eskatuz.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2010eko UZTAILA

**EUSKARA ETA
LITERATURA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2010

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA**

B AUKERA

B.1.- IRAKURMENA

- *ULERMENA (2 puntu)*

(Erantzun galdera hauei)

1. Zer da marraztea Elena Odroziolarentzat? Zergatik?
2. Zergatik hasi zen marrazkigintzan?
3. Zergatik ez du margotzen testuan dagoena?
4. Lan bat onartu ala ez erabakitzeke orduan, zer hartzen du kontuan E. Odriozolak?

- *GAIA ETA LABURPENA (2 puntu)*

- GAIA (Eman esaldi bakar batean testu honen gaia)
- LABURTU TESTUA (gehienez, 5-7 lerro) (Azaldu testuan agertzen diren ideia nagusiak)

B.2.- HIZKUNTZA ETA LITERATURAREN INGURUAN (2 puntu)

(Azaldu ondoko esaldi hauen esanahia)

- 1) “Marraztea (...) bizitzeko era bat da”.
- 2) “buruari buelta gehiago ematen dizkiolako”.
- 3) “ingurua desagertzen zait”.
- 4) “ilustratzailearen ikuspegia”.

B.3.- IDAZLANA (gutxienez 200 hitz) (4 puntu)

Gaia: *Arte moderna*

Iritzi artikulatu bat prestatu behar duzu egunkari baterako ondorengo gidoia garatuz:

- Arte moderna ulergaitza askorentzat.
- Arte modernoan dena da artea.
- Arte moderna arin ahazten den artea.